

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ETA HORREN SOZIETATEA
DEN GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAUren URTEKO KONTUEN
IKUSKARITZA ZERBITZUA PROZEDURA NEGOZIATU PUBLIZITATEDUNAREN
BIDEZ KONTRATATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN KLAUSULA
TEKNIKOEN AGIRIA**

1	KONTRATUAREN XEDEA.....	2
2	KONTRATUAREN IRISMENA.....	3
3	LANTALDEA.....	3
4	LAN PLANA.....	4
5	IGORRI BEHARREKO TXOSTENAK.....	4
6	TXOSTEN TEKNIKOAREN EDUKIA.....	4

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da 2015 eta 2017 bitarteko ekitaldietako urteko kontuen eta egoeren ikuskaritza eta egiaztapen zerbitzua emateko kontratua, hain zuzen ere ekitaldi bakoitzean, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta horren sozietate den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU-k egindako aurrekontu eragiketa, aurrekontuz kanpoko eragiketa, ondare eragiketa eta altxorgintza eragiketa guztiak ikuskatzeko. Kontratua 2018ko ekitaldirako luzatzeko aukera egongo da.

Kontu-ikuskaritza horiek indarrean dauden lege xedapenen arabera egingo dira, betiere finantza informazio aplikagarriaren esparru araudiak xedatutakoa betez, eta bereziki, bertan zehaztutako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraituz.

Kontu-ikuskaritza horien helburua da irizpen bat ematea, Urteko Kontuei buruzko iritzia emanaz, multzoa osorik harturik, eta atal hauetan banaturik: egoera-balantzea, galera eta irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketak, eskudiruaren fluxuen egoera eta memoria. Azken horrek azaldu beharko du dagokion ekitaldiko urteko kontuek, alderdi garrantzitsuenetan behintzat, modu fidelean islatzen dituen ondarea, finantza egoera, eragiketen emaitzak, ondare garbian eta eskudiruaren fluxuetan egondako aldaketak; eta informazio beharrezko eta nahikoa ematen duten datu horiek guztiak interpretatu eta ulertzeko. Azkenik, kudeaketa txosteneko kontabilitate informazioa dagokion ekitaldiko urteko kontuekin bat datorren ere egiaztatu beharko du.

Kontu-ikuskaritza lanez gain, entitateak sinatutako kreditu kontratuak direla eta, finantza entitateek eskatzen dituzten ziurtagiri guztiak igorri beharko ditu esleipendunak.

2 KONTRATUAREN IRISMENA

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUn eta Gipuzkoako Hondakinen Kongsortzioan egingo dira kontu-ikuskaritzak.

Kontu-ikuskaritza horien bidez egiaztatu beharko da kontabilitateak oro har, Urteko Kontuek eta gainerako finantza egoerek modu fidelean islatzen ote duten entitatearen ondare zein finantza egoera, eta entitateak egindako eragiketen emaitzak ere, betiere finantza informazio aplikagarriaren esparru araudiak xedatutakoa betez, eta bereziki, bertan zehaztutako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraituz.

Esleipendunak beharkizun hauek izango ditu, lanaren azken emaitza gisa:

- Kongsortzioaren kasuan: Finantza kontu-ikuskaritzari buruzko txosten bat igorri beharko du, 2015-2017 bitarteko ekitaldietako aurrekontuen likidazioak eta kontu orokorrak egokiak ote diren esanez. Kontratua luzatzen bada, 2018ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioaren eta kontu orokorren egokitasuna ere aipatu beharko du.
- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren kasuan: Administrariak 2015-2017 bitarteko ekitaldietan egindako urteko kontuei buruzko finantza kontu ikuskaritzari buruzko txosten bat igorri beharko du, eta kontratua luzatzen bada, baita 2018ko urteko kontuei buruz ere.

Kontu-ikuskaritza lanez gain, kontu-ikuskaririk ziurtagiri bat igorri beharko du datu hauekin: (i) Palanka-efektu Ratioaren kalkulua, finantzaketa kontratuek horri buruz ematen dituzten definizioei jarraituz; (ii) sortutako Kutxako Fluxua, finantzaketa kontratuek ematen dituzten definizioei jarraituz; eta (iii) aipatutako ratioak kalkulatzeko beharrezkoa den beste edozein finantza informazioa, baita entitatearen finantza gaitasunari eta kaudimenari buruzko informazioa ere. Egiaztapen hori egiteko, kontu-ikuskaririk bere ikuskaritza txostenean adierazitako salbuespenak kontuan hartu ondoren, dagozkion doiketak egingo ditu. Kreditu kontratuak direla eta, finantza entitateek ikuskatutako urteko kontuetan oinarritutako beste ziurtagiriren bat eskatuko balute, horiek kontratuaren irismenaren barne daudela ulertuko da.

3 LANTALDEA

Esleipendunak konpromisoa hartzen du kontu-ikuskaritza lanak egiteko eskarmentu eta prestakuntza egokia duten langileak jartzeko, betiere enpresako bazkide-zuzendaria edo kudeatzailearen zuzendaritzapean. Kontratuari atxikitako langileen curriculum vitae eman beharko du.

Kontratuaren iraunaldian zehar, langileren bat ordeztzen bada, ordeztutako langileek lana hastean zuten antzintasun bera eduki beharko dute ordeztutako langileek, gutxienez, eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUko zuzendaritzari ordeztuaren berri eman beharko zaio, azken horrek antzintasunaren baldintza behar bezala betetzen dela egiaztatzen.

4 LAN PLANA

Lana bi fasetan egingo da: aurretiko fasea eta amaierako fasea.

1-Aurretiko fasea: Sozietateak egindako aurretiko ixtearen finantza egoeren egiaztapena. Iraileko edo urriko ixtearen inguruan egingo da fase hori.

2-Azken fasea: Urteko Kontuen kontu-ikuskaritza txostena egingo da, eta baldintza agirian zehaztutako gainerako lanak egingo dira. Kontu-ikuskaritza ekitaldiaren itxierari buruzko informazioa jasotzen duen momentutik aurrera egingo da fase hau.

5 IGORRI BEHARREKO TXOSTENAK

Kontu-ikuskaritza eta sozietateak adostuko dute kontu-ikuskaritzako lanak egiteko epe zehatza, txostenak entregatzeko datak bete daitezzen, betiere data hauek kontuan hartuta:

- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren urteko kontuen eta kontu-ikuskaritza irizpenaren zirriborroa. Otsailaren 28a baino lehenago.
- Kontu-ikuskaritzaren eta urteko kontuen behin betiko irizpena: Administrazio Kontseiluak urteko kontuak eman ondoren, astebeteko epean, behin betiko txostena igorri beharko da, administrariak emandako urteko kontuak barne.
- Baldintza teknikoaren agiri honetako 2. puntuan zehaztutako ratio-kalkulu eta ziurtagiriak, behin betiko txostenarekin batera.
- Barne kontrolerako txostena: Kontabilitate eta kontrol prozedurak hobetzeko beharrezkoak jotzen diren gomendio guztiak bildu beharko dira bertan.

6 TXOSTEN TEKNIKOAREN EDUKIA

GHK-k kontu-ikuskaritza zerbitzua nola emango den modu egokian jakiteko behar beste informazio zehaztuko du lizitatuak bere memorian, era horretan, Baldintza Administratibo Berezien Agirian xedatutako balorazio irizpideak betetzeko.

Eduki hau izan beharko du gutxienez:

- Zerbitzua emateko prozesuan jarraituko den metodologiaren deskribapena.

- GHKren eta Kontsortzioaren ezaugarriak kontuan hartuta, lizitzailearen ustez, kontu-ikuskaritzetan aztertu beharreko elementu garrantzitsuenen identifikazioa.
- Lantalde teknikoaren deskribapena, bereziki azpimarratuz langileek alde aurreko eskarmenturik duten GHKren eta Kontsortzioaren antzeko arazoekin edo horien antzeko bezeroekin.